

OFF-eko mintegia

ITXARO BORDA

Gasteizeratzea ederra zen. Etxegarateko lainoak zeharkatuz. Bide inizatiko baten segitzea bezala. Gutariko bakarrek ez zekiten zer zen eta nola funtzionatzen zuen itzultzaile mintegi batek. EIZIEko antolatzaileen deiari itsura baiezkotan erantzun ote genien? Dena dela, Florida parkeko Ignacio Aldecoa kultur zentroan biltzen ginena lehen aldikoz gurutzatzen ginen. Hiru egun bagenituen elkarren ezagutzeko.

Orain ordenadore eramangarriekin lanean hasi aurretik beti sareko konekzioaren arazoa agertzen da. Buruhauste zenbait gora-behera konpontzen ere da nahikoa laster. Makinak piztu eta mahaiaren inguruko kideek beraien burua aurkeztu zuten: Haizea Parot Baionakoa, Manu Lopez Gaseni Barakaldoko idazlea, Isaac Xubin A Coruñako irakaslea, Pau Joan Hernández katalana, Itxaro Borda hiru egunez jorratuko ziren olerkien egilea eta Aran Royo egonaldiaren alde pratikoen arduraduna –eta benetan diotsuet, ederki lortu zuen.

Frantseserako autoitzulpena orraztu zuen Itxaro Bordak –ez erraz, bere erranen arabera. Baina gainerakoek ez zuten *zubi* hori baliatu, jatorrizko hizkuntzatik abiatu baitziren. Poesia bakoitza zirikatu zen, tolestu zen, kitzikatu zen, zitzikatu zen, misterioaz biluzi zen, azkenean bost hizkuntzetan uler eta irakurgarri gera zedin. Horretarako, sarean eskaintzen diren hiztegiak eskura behar ziren, agudo eta zehatz. Idazleak berak, naski, anitz ikasi du itzulterako orduan. Haizea, Pau Joan, Manu eta Isaak-en baliabideak

erabiliz ekingo dio jada Maria Merce Marçalen poemak euskara-tzeari etxeratuko denean.

Ignacio Aldecoa kultur etxeko aretoan, hondar arratsean, ikusgarria eskaini genuen. Poesia irakurraldia zen funtsean, bakoitzak bere mintzairan. Galegoa, katalana, frantsesak eta gaztelelania nahasten ziren; ahotsak, taula gainean egoteko moduak, guztiok ez baigenuen ohiturarik horretarako. Jende multxo polita hurbildu zitzaigun: adiskideak, lagunak, poesia entzun nahi zuten ezezagunak. Bazen tokia. Floridako parkeko *lunchean* konturatzen ginen itzulpenaren garrantziaz: itzultzea, arrotz zaizkigun eleen argira ekartzea da. Itzultzailearik gabe ez da elkarrizketarik, entelegatzerik, bakerik, literaturarik, harreman sozialik.

Lan egin genuen asko. Plazer hartu ere Gasteiz ez baita jagoitik Potato taldeak duela hogeita bost urte abesten zuen *capital artificial de un país singular* hura. Bazkal eta afal orduetan Viña Ane Errioxako ardoz eta *goxua* deituriko postrez asetzen ginen, Kutxi karrikako Alacena eta La Riojana artean zegoen balizko tunelaz Rafa zerbitzariak gezurreztatu zizkigun leiendak moldatzen ginituen –Pau Joane aitortu berri zigun *Millenium* sailaren hirugarren alea katalanera pasatu zuela– eta Iñaki Frieria idazle-itzultzailearen gonbitari erantzunez Legebiltzarra bisitatu genuen. Zinez interesgarria herritarrontzat.

Ostegun gauean Dublineko eguteraan nagitu ginen. Partitzeko tenorea zen batzuentzat. Iban Zaldua, Gerardo Markuleta, Rikardo Arregi, Mikel Ayerbe, Manu López eta bertaratuek handizki frogatzen zuten orokorki Gasteiz jagoitik EH-ko hiriburu kulturala bilakatzen ari dela.

Itzultzaileei esker ala?

GEUK